

- **Funtsezko elkarteak:**

ERAGILEAK:

Dutxako zati bakoitzaren arabera, enpresa bat edo beste aukeratuko dugu.

1. Bozgorailua: Alexaren bidez, erosleak hitz egin besterik ez du egin beharko atal bakoitza martxan jartzeko. Esate baterako, irratia edo musika entzun nahi izatekotan, esatearekin piztuko litzateke. Dutxa pizteko, berdin. Toailak lehortzeko, berdin. Eta horrela, guztiarekin, bide errazena baita hitzekin funtzionatzea. Horri esker, ere, Alexa, eta enpresa era berean, ezaguna egingo da, dutxaren atal oso garrantzitsua izanik, asko nabarmentzen delako. Alexak irratia, musika, ahotsa, etab. eskaintzen ditu.
2. Dutxa: Oiartzunen kokatzen den Leroy Merlineko dendako dutxak erabiliko ditugu gureak eraikitzeke. Hala ere, ondoren aulkia sartu beharko dugula kontuan hartuz, dutxa handi samarrak izango dira. Horrez gain, aulkia sartzeko mekanismoa lurrean txertatu behar dela kontuan hartu behar da.
3. Aulkia: Alexa Amazonena izanda, aulkia ere bertatik hartzea erabaki dugu. Gure beharrak asetetzen dituen aulki bat saltzen ez denez, aulki hori moldatu egingo dugu gure langileei esker. Hauek aulkia moldatuko dute, eta ondoren, dutxara sartzeko mekanismoa sortu eta eraikiko dute.
4. Estufa: Estufa aulkiaren azpialdean kokatuko da, toailak bertan kokatuko direla kontuan izanik. Dutxak Leroy Merlin-en erosi ditugunez, estufa bertan erostea erabaki dugu ere, bide batez bi atalak lortzeko errazagoa izan dezan.